

**FEMINISTOK  
PREST !!**

# 11 eraso 12 erantzun, Feministok Prest! Vuestras violencias tendrán respuesta

Euskal Herriko Mugimendu Feministak, indarkeria matxistaren kontra, apirilaren 9an manifestazioa deitu du Gasteizen, "11 eraso 12 erantzun, Feministok Prest. Vuestras violencias tendrán respuesta" lelopean. Mobilizazio honek 3 helburu ditu: alde batetik, eraso matxistak salatzea, bestetik, azkenaldian ematen ari den mugimendu feministaren kriminalizazioa salatzea eta azkenik, bortizkeria zer den bere aurpegi anitzak ezagutu eta nola identifikatu tratatuko dituen ausnarketa eta eztabaida soziala sustatzea.

Gaur egun beharrezkoa eta ezinbestekoa deritzogu bortizkeriatzat zer ulertzen dugun birplanteatzea, bere konplexutasun guztiak eta bere forma anitzak ulertzeko markoa sortuz. Bortizkeria matxistak ez dira kolpeak eta hiletak soilik; arazo estrukturala eta sistema batean oinarritua da. Emakumeok beldurrean hezten gaituzte eta gure gorputza ahula den biartean gizonena erasokorra dela sinistarazi nahi digute. Bortizkeria matxista ez da bat eta bakarra, gure jendarteak eraikitako egitura sendoa baizik, eta feminismoak, egoera hori agerian uzteko eta berari aurre egiteko erantzukizuna dauka.

Agintariak genero bortizkeriagatik oso arduratuak agertzen diren bitartean, errealitatea oso bestelako da: berdintasunaren arloan murrizketak ematen dira aurrekontuetan, sentsibilizazioan, bortizkeria matxista ekiditeko dauden baliabideak koordinatzen instituzioetan lanean dihardutenak gutxietsiz. Faminizidioa ez da kasualitate hutsa, arazoa ez da gizon batzuk burua galtzea. Inolaz ere ez dira kasu isolatuak. feminizidioak, generoen instituzionalismoaren bitartez gure jendartearen erdigunean daude.

Harreman bortizkariak, naturalak bailitza lehenesten ditzuzte; maitasuna, jabetza, jelskortasun eta kontrol moduan. Hauek normalizatzear gain beste harreman ereduak ikusteaz bihurtzen dituzte. Hau dela eta, arau horri ihes egiten dioten gorputzek eta harremanek bortizkeria matxista jasaten dute. Lesbianen kontrako erasoak, nerabe transexualek beren buruaz beste egitea eta aniztasun funtzionala duten pertsonetako erasoak ere bortizkeria matxista dira.

Gaua eta jaiak bortizkeriarako espazioak dira. Gaua, alkohola eta permisibitatea aitzaki hartuta emakumeon kontrako erasoak areagotu egiten dira. Batzuentzat jaiak ondo pasatzeko espazioak diren bitartean, beste batzuentzat erasoak, bazterkeria eta beldurra sufritzeko espazioak dira.

Ekonomia kapitalistak zerbitzu sozialak murrizten ditu. Honek eragin nabarmen handiagoa dauka emakumeekiko. Prestigiorik gabeko lanak egitera eta zaintza lanetara bultzatzen gaitu. Emakume etorkinek, esplotazio eta isolamendu egoerei egin behar diete aurre, gure jendartearen herentzia arrazista eta kolonialista beraien gain erortzen den bitartean. Egun, gainera, eraso sexistak neurri arrazistak justifikatzeko eta zabalatzeko erabiltzen dira, arazoaren arrazola guztiz manipulatu.

Ez gara ez biktimak, ezta pertsona pasiboak ere. Gure bizitzaren protagonistak gara. Gure errealitatearen transformazio sozialean eragin zuzena duen subjektu politikoak gara. Arazoaren muinari heltzeko ordua da, konpromezuak hartzeko ordua, bortizkeria matxistak ekiditu eta emakumeok menpekotasun espazioan ezartzen gaituen sistema eraldatzeko garaia. Argi daukagu zeintzuk diren honen jatorriak eta berauei aurre egiteko prest gaude.

Euskal Herriko mugimendu feminista erasoei aurre egiteko prest dago eta apirilare 9an hau plazaratzeko aukera ezin hobea izango dugu. Kaleak betetzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, gure aliantzak erakusteko eta eraso bakoitzaren aurrean egongo garela altu eta ozen ohiukatzeko prest gaude:

**11 eraso 12 erantzun, Feministok Prest!!**

Euskal Herriko mugimendu feministatik apirilaren 9an, Gasteizen ospatuko den manifa nazionalarekin bat egiteko deia luzatzen dizue. Horretarako zuen atxikimendua eta babes a ezinbesteko dira.

Atxikimenduetarako Blog bat zabaldu dugu. Bertan, horretarako propio sortutako formulario besterik ez da bete beharko. <https://feministokprest.wordpress.com/>

Beste alde batetik argazki bat atera eta sare sozialetara igotzea eskatzen dizuegu. Argazkia ateratzeko mezuari atxikituta doa gure Logoa.#Feministokprest hastahg-a ere erabili dezakezue. Blogean ere badago irudia deskargatzeko aukera.

Apirilak 9an Gasteizen elkar ikusi aurretik, ordurarte antolatu diren ekintza guztietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Denon artean lortuko dugu Gasteizko kaleak lepo betetzea!!!

**GORA BORROKA FEMINISTA!!!!!!**